


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

277n. zenbakia
zenbatia-urrilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



Mungia'ko Markaida'n Salbatzaillea baseleiza'n

- Baseleizak antxinakoak dira: vi gizaldian sortuak
- Lenengo kristiñau euskaldunen eleizak
- Lenengo illerriak: barruan illak eta biziak
- Zaindu daiguzan baseleizak

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E R A Z A

-vK

2002-2003 IKASTURTEA

OGEI TA AMABOSGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 7AN

34.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 7 DE OCTUBRE

EUSKALDUN FEDEDUN

Leenago bai, euskaldunik geienak fededunak ziranean. Baia orain... Nik neuk ez dakit gure errietan ze denganiño jazo dan. Guk geuk izan ez genduzan erreztasunak eta aukerak daukiez, ikasketak egiteko, oraingo gazteak eta geienak dira asko ikasiak eta landuak, baia altxorrik onena galdu egin dabe: Siñismena. Eta sendietako bakezko bizikerea lorrindu: Siñismenean eta bizikeran zoriontsu bizi zirean guraso asko zetara jokatu ez dakiela jarri dabez. Tamalgarria!

Besteak beste, geure erriari buruz diardut. Gure gaztealdian gure errietako gizasemeak, bai emakume eta bai gizon, zintzoak eta fededunak zirean eta orain sortu izan dakiguzan naste ta lorrinkeria barik izan gintzazan, siñismenez eta Jainkoaganako maitasunez.

Izagirre'tar Juan geure erriko semea zan abadeak esan oi eban, abadetzarako ikasketak egiten Gazteiz'en egoanean, Martin Aitari entzun ei-eutsan, Araba'ko erri baten: "En Bizkaia hay un pueblo, Ajángiz, que no pecó en Adán".

Martin Aba, Larrea'ko karmeldarra, sermolari entzute-sua zan. Sarri izaten genduan gure artean eta ondo eza-gutzen ebazan gure erriko eliztarrak. Euskal-idazlea be ba-genduan: "Egi biribillak" idazten ebazan Karmengo Argia' n, Arratia' ko bere euskera ederrean.

Alakoxe sinismendun zintzoak zirean, ba, orduko zaar eta gazteak. Bai mezatan eta baita arratsaldeko elizkizufletan bete-beterik izaten zan gure elizea. Orain, barriz, gazterik ez umerik ez da elizkizunetan agertzen Aittetugariak dira areik, gogoetan betirako zirradaa ezarri euskuen maiatzeko loretake abestiak eta abar, bizitza guztirako siñismenaren indargarri irauten dauskuen gomutagarriak.

Orduko abadeak esaten ebenez, gabetan Agurtza

deuna otoitz egiten etzan etxerik ez ei-egoan gure errian. Eta orain... Ai orain! Guztiz dira jakintsuak eta len erro-sarioak eskegita izaten zirean eskatzen ormetan, gure gogoei, batez bere ume eta gazteeri, kalteak-kalte egiten diarduen irratikuskiñak ikusten dira. Auxe bai dala kalte-garria! Fedea galdu daitenean, lotsabakokeria, Kuntze-keria, berbakera baldrasa, sasi-eskontzak, bizi-alarguntzak eta abar eta abar sortuten dira. Eta zoritxar auxe jazo daki-gu gure errietan.

Iratzeder beneditar olerkari gogokoiari itaundu neutsan, bein, zer jazo ekioen arei, Prantzia'ko abade langilleeri eta, berba gitxitan erantzun eustan: "Otoitzik etzuten egiten-eta...". Otoitzik egin ezean ez dago, ba, siñismenean zintzo jarraitzerik. Eta leengo aldean gitxik egiten dabe otoitz orain.

Leenagoko abadeak, pekatua ez dala, pekatuak bidea izan daiteke jokabidea bera be gogor salatuten eben. Oraingoeri, ez dautsegu entzuten, euren berbaldietan, irratikuskiñak gizartean dagiskuzan kalteai buruz ezer esaten. Alperrekoa dala uste ete-dabe, ba, edo itsasoan goldaketan jardutea dala oraingo gizadiari olakoak adiraztea?

"Egia askoren mingarria" da esakerea, eta ba'daiteke lerro oneik norbaitzuk minberatu izatea be. Baiña, auxe dogu egia eta egiari ezin geinkeoz entzumenak estali.

Aurre-Apraz'tar Balendin'ek

— Aiengiz'en 2002, Dagonillak 4. -

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ABIZENAK ETA TOKI-IZENAK DIRALA-TA

(B. Latiegi'ri erantzuna-1)

Etimolojien guda asi daua diño Bixente'k bere idazlanean. Asteko, esan beit "guda" eta "borroka" berbak ez jatezala gogoko, gurago dot "ekintza" berbea. Eta gudan naiz borrokan baiño errezago da euskerearen aldeko ekintzetan adiskide ta lankide izaten jarraitzea. Gaiñera, Bixente'k naiz beste edozeiñek nire eritxien aurka egin, jakin bei ni ez nazala iñoz iñogaz asarretzen. Egia esan, ba-dagoz banaka batzuk nigaz asarretzen diranak.

1.- **ARRIETA:** Ona emen Bixente'ren lenengo utsa, nire ustez. Ez dakit nondik artu dauan nik abizen oneri buruz "arte asko dagon lekua" esan dodala. Ez da ori nire eritxia, "arri asko dagon lekua" dala baiño. "Arte asko dagon lekua" "Arteta" litzake. ¿Ardiak be or sartzen dirala? Ni ezetzer nago. "Ardi" itzak "ar-" artzen dau: "artalde", "artegi", "arkume", baiña ez dot iñon aurkitzen "arri". Arte asko dagon lekuari "arreta" esatea be ez dau nire belarriak onarzen, "Arreta" barik "Arteta" izango litzake.

"POLIKIROLDEGIA"ri buruz batera nator, Bixente. Nitzat be "kiroleta" litzake egokiena eta "kiroldegia" be egokia. Benneo'n bein baten "Polikiroldegia" izena ipiñi eutsoen olako toki batera eta neure batera-eza agertu neutsen, baiña alperrik izan zan. Euskaltzaindiaren indarra, nik uste!

2.- **ARTOLA:** Bizkaia'n, Bixente, zuek Gipuzkoa'n baiño obeto bereizten joguk "Ola" eta "olea": Zurezkoa dana "ola" da eta arrizkoa be iñoz izaten da Moises'en "ol" biak lez. Baiña artu daigun "otea" edo Burdin-lantegia eta beste zerbait izan daitekena. Berba onek bide bi artzen dauz: Ugartasuna adieraztekoa (eta onek abizen asko: Alzola, Azarola, Egurrola, Urkiola. Uriola... eta beste bidea: lantegia adieraztekoa: Olabari, Olazar, Olabeaga, Olaguren, Olarte, Oleaga... Zelan bereizi noz dan ugartasuna eta noz lantegia? Ugartasuna beti atzizkia da eta aurretik izena daroa: Egurrola. Lantegia ostera ez da iñoz atzizkia, itz-ondoa baiño: Olabari. Ba-dagoz itz batzuk zalantza sortzen dabena, baiña ez dira salbuespenak. Beste arau bat dago: Tokia adierazten dauan aurizkia artzen dau "Olea" k: Goikolea, Sarrikolea, Plazaola (Bizkaian Plazaolea litzake).

Olan dala, zer da: "Artola". "Arto asko dagon lekua" izan leiteke, baiña zentzun bereizi batek diñost ez dala artoa, artea baiño. Orduan "Artola" arte asko dagoan lekua da. Izan be artoa ez da landara ain iraunkorra, artea bai.

Arria ugari dagon tokia esateko "arriola" itz ederra daukagu. Mungialdean zabal-zabal dabillen abizena. Ardi asko dagon lekua izan leiteke, baiña nire zentzun bereiziaz ezet diñost. "Lapida" esateko nominatiboan "arri-ol" izango litzake (Bizkaieraz) eta ez "arri-olea".

Eta "ohola"ri buruz zerbait: Atxea berbarik beiñenetan sartu dabe: Herria, bihotza... nire abizenean ez dagoala-ta pozik nengoan, baiña, bai, ortxe be ba'dago "Oholazahar" idaztera elduko ete naz? Ez neuke gura ezergaitik be!

"Arrazola"ri buruz esandakoak balio dau, baiña ik esaten dokan ori batez be Bizkaia'n kontuan artu-bearrekoa dok. Itzak laburtzeko oiturea Bizkaia'n da aundiagoa. Oraintzu nire billaketan aurkitutako berba bi gogoratuko duazat: "Diego Aretxeta" toki-izena "Diatxak" biurtuta eta "Fruniz-etxebarria", ostera, "Puntzebarri" biurtuta. Eta antzera eguneroko berbetan be Bizkaia'n: "Egin bear dogu" esateko "inbiu" esaten dok eta orregaitik egiten jakek euskaldunbarria eta giputzai ain gatx gure eguneroko euskerea ulertzea.

"-aga/egi" bereizteko nire susmoa dok, "aga" ez dala besterik mugatzaille sendotua baiño, "egi", ostera, izen batetik sortu dala uste joat: "Ikuspegi", ikuspean dagoan "egia" edo "arloan". "Gurpegi" gurdi-bidearen beko aldean dagoan arloan edo egia.

ARRILLAGA: Erderazko "Villa" eta euskerearen "Bill-a", nire ustez naikoa errez bereizten dozak. Gogoratu "Mendibil" edo "Sasibil", ez dauke uriagaz zer-ikusirik. Baiña uriak be erriarrak batzeko sortu ziran eta orrelan sortu zeitekean "erribil", baiña etorri au aurrekoa baiño askoz illunagoa da. Orrelan "Arribillaga" eta ortik "Arrillaga", arri moltsoa dagon lekua izan leiteke, baiña moltso bat eta ez nik esan dodan lez "arri-biribillak dagozen lekua".

ARRINDA: "in" sasia dala esan joat eta ik adierazpen ori ez dala iztegiatan agertzen eta Euskalerrian iñon esan be ez dala egiten diñok. Orra or beste arazo zabal eta sakon bat: Abizenetan agertzen diran itzak eta atzizkiak, geienak, ez dozak agertzen iztegiatan eta erriko izketan, toki-izena bera aztertuta atera bear dok esan-naia, uts egiteko arrisku aundiaz. Eginda jaukak toki-izenetako atzizkien eta itzen zerrenda bat, guztiz 127 berba jaukazat eta 60 atzizki. Or agertzen diran ainbat eta ainbat izen eta atzizki galdu joguzak, zugutzen izenak, landarenak, bedarrenak, txorienak... "Astigarra" edo "zumarra" edo "urkia" zer diran be ortxe-ortxe jakiguk!

ARRUPE: Igaz batera naiagok "arru" ez dala mendi-muñoa esatean, baiña ez "desfiladero pedregoso" dala esatean. Ori izan ezkerro, ez dok ulertzen "Arrupe", arruaren azpian ez ba-jagok, ondo ostera aldapa edo olako zerbait izan ezkerro: Aldaparen beean, edo barrenean. "Arrutza" be obeto ulertzen dok: Arru edo aldapa asko dagon ingurua eta ortik Zenarrutza: Goitik berantza aldapa edo arru asko dagon lekua. "Arru-beetik errekek ots" be obeto ulertzen dok, ots ori lurraren azpitik entzuten ez ba'dok, aldapearen barrenean baiño.

Amaitzeko, Bixente, ekintza zabal eta sakonera sartu gozak, Lopez Mendizabal'en "pastizal" guztiak onartu barik eta Mitxelena'ren latinietik sortutako etimoloji geiegiak be onartu barik. Gure arteko gudea edo ekintza ez dok izango odoltsua, baiña izan leitekok amaitu-eziña edo luzea beintzak. Gauza asko jagozak or esateko ta eztabaidatzeko.

OLAZAR'tar Martin'ek

OTO ETA POTOTO

Pototo'ri buruz zerbait.

Nor dala Pantaleon?

Pototo'ren aita.

Sasi-abogadu. Eskribitzen eta irakurtzen eskribau batek aña dakiena...

Baserriekin arrobiak ba ebazan.

Bi itzai eukozan arrobiaren serbitzurako, bi lau errueda-ko gurdiak eta lau idi galantak.

Aberatz-aberatzak une onetan ez dira; ondo bizitzen oituak, bai... Eta, obeto naiean beti.

Bartolok, berriz, Naparroako baba beltza urdai zati bategaz izan ezkerro, ez eban bere burua Ingalater 'a'ko Erregearekin kanbiatuko... Pantaleon beste era batekoa dogu: baba beltza guztatzen jakon, baña, Aginaga'ko angulak naiago.

Zazpi seme-alaba zituen Pantaleon'ek; danen artean zaarrena, Pototo.

Zaarrena eta arroena; Oto'ren kidekoa.

Oto eta Pototo, kidekoak zirenez, alkarrekin ibilli oi ziran beti: bai mendian sagar-lapurretan, bai ibai-ertzean loinatan, baita pagadietan txori-abietan be. Makiña bat aldiz alkarrekin burrukan egindakoak:

—Emoidak sagar muxugorri ori!

_ Neuk arrapatu dot.

— Emango ala?

—Ez!

—Tok, ba.

Esanarekin batera jartzen eban Pototo'k bere ukabilla Oto'ren buruan. Burruka asita egoan. Pototo'k janari obeak etxean; sei erralde geiago gorputzean, eta jakiña dago, aizkenerako artzekoak Oto. Txikia izan arren, makurgaitza zan. Alan, be, sagar-muxugorria Pototo'rentzat:

—Orretara ez dago eskubiderik!

—Arraskate!

—Au ez dok gizalegea!

— Arraskate!

Aundi zaleak ziran Pototo'renean; dana zan aundia etxe aretan: eurok aundiak, etxea aundia, soloak aundiak (iñoren eskuetan); jan-edanak aundiak; arrokeriak aundiak... eta, aizkenerako, zuloak be aundiak.

Iru baserri izan eta irurak jan.

Urte aretan erriko festarako bersolariak ekarri ebezen.

- Bai, onek tripazai ederrak...! Jan eta eran, besterik, zer?

Alan ari zan Pantaleon taberna-zuloan. Bigaramonean, bersolariak Erriko-etxetik kantari eta orra or plazan agertu gure Pantaleon, tantaia bezin tente. bi eskuak patrikeretan...

Ordurako bersolaria Pantaleon'ek esandakoa jakinda egoan, eta gure gizona plaza-ertza zapaltzerakin batera, asi zan kantuan goiko balkoietik, berari begira:

Jan-edatera gu gatoztela

Atzo esan zenduan zuk

Janarekin batera ondotxo

Egingo gendula zurrut:

Iru baserri janda ba'nego

Eingo neuke pelotan uts;

Barka zaidazu esandakoak

T'iñolaz be ez zaputz.

Ez zuen geiago entzuteko astirik artu gure Pantaleon'ek. Bertan jira eman eta an doia marmar bizi batean añaniñuka eta maldizioka... Ekaitza bera baño asarreago.

Ez zuten bera baretu beuren lagunek:

—Bersolarien esanei ez diok kasurik egin bear...

—Urte eta mozkor galantak! Txerri alenak... Alkatiak erru guztiak.

Zertarako olako jendea errira ekarri? Lotsagabeko jendea! Neu bezelako gizon prestu bateri, nolan esan lezaizkioke orrelako astakeriak?!

Aundizat eukan beure burua, eta miñ ematen barruko arrokerian bersolarien berbak. Arreskeroz gorroto zien bersolari eta erri xeeraen kultura-agerpen guztiei.

Oto optimista eta baikor utsa dogu, ez bait dau prakak lotzeko gerrikorik eramaten... Eramatekotan be, lokarri eta txikot zaarren bat... Gaitz-erdi botoiak eten barik badauz...

Pototo alderantziz, kalera irtengo ba'dau, prakak lotzeko gerriko eta tiranteak, biak batera, bear... Pesimista eta ezkor utsa. Beti segurutik joka bear...

Oto biotz oneko gizona da; sentzunik arinxamarra, begi garbiak izan arren. Lojika sinplekoa. Konplejorik gabea. Gizarajo koittadu bat, esaten ebenez...

Pototo, berriz, ikasia izan arren, barruko askatasunik gabe ebillen. Beti lotuta. Beti zer esango ebenari begira. Beti iñoren bizkarretik parre egiteko prest, eta, besteek bere bizkarretik egingo zuten bildurrez...

Orra or gure "istorio-mistorio" auen personajeen nortasuna agertu.

Orra or geure gizonok.

Emendik aurrerakoak eurori bizi-bidean gertatutakoak dozuz. Naasian daude; bañan, bizitzako gertakizunak be, naastuta gertatzen zaizkigu.

—Bañan, Anes, mesedez, gaurko egunean (1968) goimaillako kultura bear dogunean, oiek al dozak Euskalerria'ri eskeintzeko "istorio mistorioak"?

ARRINDA'tar ANES

INGELESAI STOP!

Nefyn Galesko iparraldeko erri txikitxu bat da. Gwynedd deritxon errialdean dago. Nefyn itsasertzean dago eta aretza luze eta polita dauka (**seaside** resort). Bertan, 1500 bat biztanle inguru bizi dira eta geien-geienak galeseraz egiten dabe.

Aspaldion baina, lagun asko joaten izan da udan zein neguan Nefynera, bertan biziten lotuteko asmotan joan be. Geien-geienak, ostera, ingelesak. ingeles aberatsak.

Ori dala eta, Nefyngo udalak etxegintza politika kontrolatua gura dau errian, espekulazino pribatu zein publikotik kanpo.

Egon be, etxegintza politikea, leenengo eta bein, bertako erritarren zerbitzuan egon daiten gura dau Nefyngo udalak bertako gazteak errian biziten lotu aal izateko.

Ez dabe erria promotoreen eskuetan itzi gura, ezta erria eta erriko gazteen etorkizuna be ipotekatu.

Alan bada, etxebizitza geiago egiteko galazoa onartu dau udalak, bertako erritarrak orren bearrizantik euki ezean, jakina.

Argi dauke: aberatsak erakarteak ez dau-eta zertan aberastasunik ekarri.

Ikusi be, beste arazo bat be ikusi dabe. Au da, neurri orreek artu ezean, urte gitxigarrenean, erriko aginte politikoa ingeles eskuetan lotu leiteke, ingelesak eurak moren errian jaun eta jaube dirala. Eta orregaitik be, etxeak egin egingo dira, baina neurri-neurrian.

Oraindinokarren arago joanda, bertako berbetea, galeserea (Cymraeg) jagotekotan, azken urteotako ingeles etorteari neurriokaz STOP! esatea ebatzi dabe.

Egin be, ingeles uriola arek kalte andia egiten izan deutso galesereari Gales (Cymru) osoan. Eta ez dabe gura ori euren errian be jazo daiten. Integrazino neurtua gura dabe, eurak kontrolatua, atan be.

Neurriok Nefyngo alkate-zinegotziak artuak izan dira. Baina leenago, Galesko Legebiltzarrak Gales osorako onartuak izan ziran.

Eta esan bear da, bai Nefyngo udalean bai Galesko Legebiltzarrean eta bai gobernuan abertzaleak ez dagozala agintean, Britainia Andiko laboristak baino.

Zer esanik be ez dago; Galesko abertzaleak be (Plaid Cymru) neurriok pozarren artu dabez.

BAKIOKO EUSKEREĀ - 13

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

• **zelan idatzi bear dan: "areek/aiek"**

• **Bakion zelan esaten dan: "(árek/áiek)"**

ERAKUSLEAK -1

Erakusle arruntak dira "au", "ori", "a" eta beroneen pluralak "oneek", "orreek" eta "areek", dan-danok ZER kasuan edo, beste era batera esanda, NOMINATIBO kasuan. Erakusleok osterantzeko kasu guztietan be deklinetan dira.

Erakusleak izenaren (eta adjektiboaren) atzean iminten dira:

Nik liburu (gorri) **ORI** ekarri dot.

Batzuetan izena (eta adjektiboa) isilpean egon eta erakuslea bakarrik lotuten da agirian:

Nik **ORI** ekarri dot.

Bakioko erakusleak agertuko deusueguz berton. Bizkaierazkoak dira. Gaur egun, erritar batzuk batuarenakaz naaste-borrasteen erabilten dabez. Gure eritxian jokera ori sano motza da. Alan bada, errikoak argigarri ekarri doguz bertora, gorde, jagon eta ondo erabili daiguzan.

Esan bear be, agozko berbetearen azentuak joko andia daukala erakusleak ondo esan eta ulertuteko orduan, au da, singular eta pluralaren artean zein dan zein jakiteko.

(SIN.: singularra - PLU.: plurala)

Erakusleetan bizidunak eta bizibakoak dagoz. Urrengo onetan bizidunak agertuko deusueguz:

NOR? (NOR?)

SIN.: au (au)

ori (orí)

a (a)

PLU.: oneek (ónek)

oneek (ónek)

areek/aiek (árek/áiek)

NORK? (NOK?)

SIN.: onek (onék)

orrek (orrék)

arek/ak (aré/ák)

PLU.: oneek (ónek)

orreek (órrek)

areek /aiek (árek/áiek)

NORI? (NORI?)

SIN.: oneri (onéri)

orreri (orréri)

areri (aréri)

PLU.: oneeri (óneri)

orreeri (órreri)

areeri/aieni (árreri/áieri)

NOREN? (NON?)

SIN.:	onen (onén)	orren (orrén)	aren (arén)
PLU.:	oneen (ónen)	orreen (órren)	areen/aien (áren/áien)

NOGAZ? (NOGAS?)

SIN.:	onegaz (onégas)	orégaz (orrégas)	aregaz/agaz (arégas/ágas)
PLU.:	oneekaz (ónekas)	orreekaz (órrekas)	areekaz/aiekaz (árekas/áiekas)

NORENTZAKO?(NONTZAKO?)

SIN.:	onentzako (onéntzako)	orrentzako (orréntzako)	arentzako (aréntzako)
PLU.:	oneentzako (ónentzako)	orreentzako (órrentzako)	areentzako/aientzako (árentzako/áientzako)

NOGAINE? (NOIÑE?)

SIN.:	onegaine (onéiñe)	orregaine (orréiñe)	aregaine (aréiñe)
PLU.:	oneekaine (ónekaiñe)	orreekaine (órrekaiñe)	areekaine/aiekaine (árekaiñe/áiekaiñe)

NOGAIK? (NOGAIK?)

SIN.:	onegaitik (onégaitik)	orregaitik (orrégaitik)	aregaitik/agaitik (arégaitik/ágaitik)
PLU.:	oneekaitik (ónekaitik)	orreekaitik (órrekaitik)	areekaitik/aiekaitik (árekaitik/áiekaitik)

NOGAN? (NONGAN?)

SIN.:	onegan (onégan)	orregan (orrégan)	aregan/agan (arégan/ágan)
PLU.:	onekan (ónekan)	orrekan (órrekan)	arekan/aiekan (árekan/áiekan)

NOGAINIK (NOIÑIK?)*

SIN.:	onegainik (onéiñik)	orregainik (orréiñik)	aregainik (aréiñik)
PLU.:	onekainik (ónekaiñik)	orreekainik (órrekaiñik)	arekainik/aiekainik (árekaiñik/áiekaiñik)

OARRA: * Au beratu era onetara idazten da bizkaiera literarioan: NOGANDIK?

Iniaki MARTIARTU



IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINNTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera. idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da. Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.ª 300,50 euro.

2.ª 240,40 euro.

3.ª 180,30 euro.

4.ª 120,20 euro.

5.ª 60,10 euro.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

EUSKERA ONAREN BIDEAN

Euskeraz jakitea eta egitea ez da naikoa. Dakiguna ondo erabili bear dogu.

Orretarako ez dago besterik. betiko euskaldunai adi-adi entzun eta eurak darabilen berezko euskera ori erabilten ikastea baino.

Euskaldun zaarrak-zenbat eta zaarrago izan obeto, normalean-gure berbetearen kalidade eredu dira, bai aditzetan, bai lexikoa, bai joskeran, bai esakeretan.

Ori ez eze, azentu eta intonazinoan be garrantzi andikoak dira.

Izan be, sarritan, baserritarkeriatzat artu izaten dan doinu ori, geure euskerearen berezko doinua dana, doinurik jatorrena da euskeraz. Errespetatu eta ikasi bearrekoa, atan be.

Gure berbetearen kalidadearen bidean sendo ibili guran, aurrerantzean be ibilten itziten badeuskue, ona emen leenengo idazlantxua. Berau euskaldun zaarrai begi-

ra eginda egon arren, euskaldun barriak zer ikasirik ugari eukiko dabe berton. Balio bei berak, bada, berbetan gabilzanean, beintzat, geurea jagon eta ondo erabili daigun.

Lexikoa

Bizkaiko berbak

asago = urrin = urrun	(urruti)
bear	(lan)
beargin	(langile)
belu = berandu	
el	(ornen)
eroan	(eraman)
gura izan = nai izan	
ur =urre = paraje	(urbil)
jagon = zaindu	
jaramon = kasu egin	

Aditza

Bizkai euskerea

NORK-ZER

nik	dot	dodaz
ik	dok/dona	dozak/dozana
zuk	dozu	dozuz
arek	dau	dauz/ditu
guk	dogu	doguz
zuek	dozue	dozuez
areek	dabe	dabez/ditue

Nik ekarri **dot (dut)** liburua.
Zuk erosi **dozuz (dituzu)** ogiak.

Gipuzkerea-Batua

nik	dut	ditut
ik	duk/dun	dituk/ditun
zuk	duzu	dituzu
ark	du	ditu
guk	dugu	ditugu
zuek	duzue	dituzue
aiek	dute	dituzte

Erderakadak

Erederearen, espainierearen, interferentziak edo erderakadak geroago eta indartsu eta sakonagoak dira euskeran. Euskereak, baina, beti euki dau eta badauka orain be beraren bidea. Ez dauka erderakada orreen bearrizirik. Esate baterako:

mantendu **euki, egon, eutsi.**

Sumarioa isilpean **mantentzen** dabe (dute). —> Sumarioa isilpean **dauke (dute).**

Programazinoa **mantenduko** da. > Programazinoari eutsi egingo **jako (zaio).**

Oposizinoak **mantentzen** dira zabalik. -- Oposizinoak zabalik **dagoz (daude)** oraindino.

Egin ariketa fisikoak osasuntsu **mantentzeko.** > Egin ariketa fisikoak osasuntsu **egoteko.**

Iniaki MARTIARTU

WAP TEKNOLOGIA, komunikazioen arian

Azken iru urteotan Internetek eta sakeleko telefonoek bakotzak beraren aldetik eukitako gorakada itzela bizi izan dogu.

Onen ostean, bigarren oinkada logikoa dator: sakeleko telefonoetatik Internet erabilteko aukerea eta onegaz batera norberaren agenda, posta elektronikoa eta antzekoak be telefonotik kudeatzekoa.

Au guztiau WAP teknologiararen eskutik dator, baina joan dan urtetik aurrera teknologia au erabilten daben telefonoak merkatuan egon arren. oraindino ez dago abiadura egokidun loturarik.

Gaur egun egiten diran sakelako telefono guztick dauke teknologia au eta igazko amaieratik dagoz merkatuan WAP teknologia erabilten daben sakeleko telefonoak. Dana dala, curen unea oraintxe eldu bada be, daborduko argi ikusten da aurtengo urtearen amaierarako merkatua olango telefonoz ganezka egongo dana. Telefono oneetatik Internetera lotu aal izango dogu eta olan gure telefono arruntetik Internetek eskaintzen dauazan zerbitzuez baliatu.

Orain arte erabilten zan SMSren bidez ainbat aukera euki doguz: barriak irakurri, burtsako kotizazioak jaso, eguraldi aurreikuspenak ikusi, etab.

Emendik aurrera bestelango aukerak eukiko doguz. batez be merkataritza elektronikoa eta jokoetarako aukerak.

>=< >=< >=<

CEBIT 2000

Zezeilean Hannover-en egindako Cebit 2000 informatika azoka garrantzitsuan WAP teknologia dauken sakeleko telefonoak izan dira nagusi.

Bertan, teknologia erabilten daben enpresarik andienek euren produktuen eskaintza zein izango dan aurkeztu dabe.

Gauza jakina da sakeleko telefonoaren pantailan ezin izango dana Web-gune arrunta ikusi, baina orretarako asi dira etxe andiak Web-gune berezituak sortzen eta oraingo Web-gunerik garrantzitsuenakaz itunak izenpetzen. sakeleko telefonoak sareari lotzeko be egokitu daiezan.

Esate baterako, Nokia etxeak Amazon-egaz egindako itunaren nondik norakoak azaldu ebazan. Alan bada, etxe orren telefonoen erabiltzaileek liburu. disko eta antzekoak telefonotik erosteko aukerea eukiko dabe.

Motorolak, ostera, telefonoz lotzeko Internetean berezko ataria sortzeko asmoa dauka, Amazon eta Digital Bridges jokoan guneakaz he itunak eginez.

Arazoa, barriz, beste bat da.

Teknologia garatuta egon arren, telefonora sarbidea eskaintzen daben zerbitzaririk geienek oraindino ez dabez curen sareak egokitu era onetako zerbitzuak opetsi aal izateko eta oso gitxi izango dira urte onen amaierera baino leen zerbitzu ori eskaintzeko gauza izango diranak.

Era berean. daborduko zerbitzua emoten dabenek oso abiadura apala dauke. Datorren urtera arte itxaron bearko dogu. bada. Interneta gure sakelako telefonoan euki aal izateko.

**Josu Waliño'k
Elhuyar aldizkarian**

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

AUNDIA/ASKO

Erdereak argi ez daukazan itzak euskereari zoramena sartzen dautsoe: "Odias mucho", "bebes mucha agua", "han venido muchos hombres" beti ez dira euskeratu bear "asko" esanda: Ez "gorroto asko daukazu", bai "gorroto aundia daukazu". (Gorrotoa bat baiño ez da). "Gizon asko etorri dira". Bai. Ondo dago. Kontau leikezelako edo kopuru "konmensurablea" dalako. Ez "ur asko edan dogu" bai "ura ugari edan dozu". (Ura bat baiño ez da, "inkonmensurablea" da). Ez dogu esango "euri asko egin dau", "eurite aundia egin dau" bai.

Olan dala, esan leike "gizon asko etorri da"? Ez, "gizon asko etorri dira" baiño. Orain iñoz "euri asko" okerbidez esango ba'gendu, ez dogu esango "euri asko egin dira" "euri asko egin dau", baiño.

DEITU/ERITXI

Alboan erabilten diran izkuntzetatik egunero etorten dira gurera maillego-itzak. oraingo onetan "adstrato"tik. Baiña batzuk, bearrezkoak ez diralako edo len itz egokia daukagulako, guztiz onartu barik geratzen dira. Oneitariko bat dogu erderazko "¿cómo se llama?" esateko "zelan deitzen jako?" esatea.

"Deitzen jako" au idazle ugari eta onen artean sarritan aurkitzen dogu, esaterako Aita Santi Onaindiak edo Agustín Zubikaraik sarritan erabilten dabe. Ori geure denporetan.

Esaterako, "boligrafo" bat ikusita, esango Jukee "Zelan deitzen jako oneri?" "Oneri euskeraz idazkortza deitzen jako". Baiña idazkortzari iñoz ez jako deitzen. Gitxiago min egiten dau gure belarrian notin bat danean: "Zelan deitzen jako gizon orreri". "Gizon orreri Bingen deitzen jako". Baiña auxe be ez dala onartzekoa esango neuke nik. Ona emen zuzenago legokena: "Zelan deritxo oneri? Oneri idazkortza deritxo" eta "zein da euskeraz boligrafo onen izena? Idazkortza izena dagokio orreri". "Bingen deritxo gizon orreri" edo "Bingen da gizon orren izena".

ITXI/ITZI

"Itxi" eta "Itzi" itzak bizkaieraz antzekoak dira esakeran naiz idazkeran eta sarritan ikusten dodaz okerretara erabillita, idazle onen artean be. Esakeran, mungialdean beintzat badago alde txiki bat. "Itxi", esaterako "atea itxi"; "ixi" agozkaten dogu eta "liburua mai-gaiñean itxi" danean, orduan "itxi" esaten dogu. Ori biak bereizteko urrats txiki bat da.

Baiña gaurkoz idazkereari nagokio. Gipuzkoan "utzi" esaten dana Bizkaian "itzi" esan bear geunke. "Utzi atea

dagoan lez". Eta Iparraldean "ertsi" esaten dana "itxi" eta ori, onelan, -tx- idatzi. Esaterako "kanpora zoazenean, atea ondo itxi".

Gaitxago biurtzen da, oraindiño, oiturazko aditz-jokoa danean: "Nik beti atea ixten dot", or -x- erabilli jatorria -tx- dalako. "Zapatak beti gordeta izten dodaz". Or -z- erabilli, jatorria -tz- dalako.

NAI/GURA

Gure maillego-itzak, astratotik sartuak, noiz eta nondik sartu diran jakiteko badagoz bide batzuk. Esaterako "ispillu" Naparroatik eta Aragoitik sartu da eta, bear ba'da seigarren gizaldi-inguruan. Itz au eta -11- dauken itzik geienak bide ori artu dabe etorteko. Gaztelereak -j- edo "izpiju" emongo ebalako.

Barruko naia agertzeko Gipuzkoan eta Gipuzkoatik ur dagozen Bizkaiko lurretan "nai" itza erabilten da: "Zuk ogia nai dozu, baiña ez daukat". Bizkai-barruan, ostera, "gura" esaten dogu: "Zuk ogia gura dozu baiña ez daukat".

Zer da edo nondik eta noz etorri da "gura" itz ori?

Ori lateratik etorri jaku eta laterako itza "gula" da. Orduan "ez dot gura" berez asieran "no tengo gula" izango zan. Eta naierea agertzeko ainbat izkuntza latinkumetan aurkitzen dogu, esaterako "rumanoz", "gura" edo "gure" aditz ori. Asieran arritu egiten gafa, "rumanoz" eta euskeraz bardin esaten entzunaz, baiña jatorri ori jakin ezker ez da arritzekoa.

Noiz etorri zan?

Seigarren gizaldi-inguruan bear ba da.

DAUANA/DABENA

Esan dogu lenago aboskeriak, fonetismoak, Indar aundia daukela Bizkaiko euskeran eta euskera au idatzikeran al dala aboskeri orreik alboratu egin bear dirala, gramatikeari zuzenago jarraitzeko, euskerea ulerterezagoa izan daiten eta guztiontzat arau ziur batzuk eukiteko.

Ainbat idazlek idatzita olako esaldiak irakurri dodaz: "Erosi dabenak ordaindu dagiala". Ori ez dago gramatikaz zuzen. Baiña bai beste au: "Erosi dabenak ordaindu dagiala". Zer jazo dan lenengo esaldian? Ba, aditza "dau" da eta relatiboa gaiñeratu ezker "dauana", baiña berba egikeran "dauana"ren orde ez esaten da "dauena" edo "dabena" eta orrelan gramatika txirotu egiten da eta ulertzeko crea murritztu.

Onelan geratu beite: Gizon batek erosi dauana (ez dabena), berak ordaindu begi". Eta askorenean: "Gizon batzuk erosi dabena. eurak ordaindu begie".

Olazar'tar Martin'ek

ABIZENAK

AZPEITIA: Gipuzkoako erri onetatik zabaldu da Bizkaia, Araba ta Logroño'ra: (1348).

Aitzaren beeko aldea edo barrena esan nai dau.

AZPIAZU: Gipuzkoako Azkoitian sortu da eta Euskal-lerri osoan eta emendik kanpora be zabaldu da. (1726)

Argi da "tzu" edo "tsu" zer dan, baiña "Azpia"? Barrena izan leiteke, baita "acerolilo" deritxon landarea be, gurbia.

AZPILIKUETA: Naparroako Baztanetik urten eban. (1567)

"Azpil-" gurbi-antzeko landarea da eta azpil asko dagozan lekua litzake Azpilikueta baserria egiteko lekua. Ortik izena ta abizena.

AZURMENDI: Zegamatik urten eta Bizkaiara sartu zan. (1606)

Iñok esan dau azurrak dagozen mendia dala, baiña ori baragarri dala dirudi. Ziurrago esan lei "azar" sasia dagon mendia.

AZURTZA: "Azur" sasi lez artu ezker, "-tza" ugartasuna dan ezker, sasi asko dagon lekua litzake. Ez iñoz azur asko. (1634)

Gipuzkoa barruan dabil abizen au.

BADIOLA: Azpeitian dagoz iru sendi eta emendi Bizkaiara etorri da, batez be Ondarroara. (Azkoitia 1743)

"Badi" irea dala diño, jateko bedarra be izan leiteke. "-ola" sarritan agertzen da eta atzizki lez ugartasuna da. Badiola ta Iraola gauza bat litzakez.

BALANZATEGI: Oñaten eta Gipuzkoa osoan. Araba be sartu da: (Oñate 1388).

Arantzategi"tik etorria dala diño eta orrelan arantzak dagozen tokia litzake.

BARANDIKA: Mungialdean eta Bizkai guztian dabil eta kanpora be urten dau. Muxika'n sortua. (1689)

"b-" Proteika edo gero ezarria da. "-Aran-" ibarra dogu. "Di" ugartasuna. "-ka" toki-atzizkia. Au Bizkaiaren ugari dago baiña ez dakigu zer dan. "Aran asko dagon tokia".

BARANDIARAN: Ataundik urtena. Bizkaiaren be badago. Gipuzkoan zabal. (1691)

"Arandi" k aranak dagozela esan nai dau eta aran orreik ibar baten dagoz. "aran" baten. "Aran-landarak dagozen zelaia edo arana".

BARINAGA: Markiñatik urten eta Bizkaia ta Gipuzkoako osoan zabaldua.

"Gara" irea da "-in-" eta "-aga" toki-atzizkiak.

BAROJA: Araba eta Errioxa inguruetan sortua eta dabilena, baiña sartu da Naparroa ta Gipuzkoara be. (Valladolid 1519).

"Baro-" irea izanik, "-ja" tokia agertzeko atzizkia baiño ez da: "Iralekua".

BARTUREN: Bizkaiko Bakion sortua. Elorriora be zabaldu da. (1748)

"Sasitza" esan gura dau eta "-azur-" da oiñarria. "-en" toki-atzizkia da.

BARRENA: Oñate-inguruan asi eta Gipuzkoan zabaldu da, gero Bizkaiaren.

Beko aldea edo barrukoa esan gura dau, baiña besterik ezer be ez, eta ori gitxi da. (Villafranca 1399).

BARRENETXEA: Onak "Barrena" utsak baiño zozer geiago diñosku: Zerbaiten barrenean dagoan etxea.

Eibar-ingurutik Gipuzkoa osora zabaldu da eta Bizkaiaren be zabal dago. (Ataun 1399)

◁*

BARRONDO: Bizkaiaren dago geien.

"B-" arteko gero ipiña da eta "-arrondo" da jatorria: Izan leiteke arroa edo mendi muñoaren ondo, arriaren ondo...

BARRUTIA: Gernika-aldean asi eta Elorriora arte zabaldu da Bizkaiaren eta Gipuzkoaren be badago. (Arrasate 1353)

Inguruan esia dauan lur-arloa da, naiz lur landua naiz landea.

*..

BASABE: Arabako Baldegobian dago izen au dauan erri bat, baiña Bizkaiara ta Gipuzkoara be zabaldu da. (Leniz 1429)

Sasiaren barrenean izan leiteke baiña errezago basoaren barrenean dagon lekua.

BASARAZ: Bizkaiaren dabil (1521).

"-az" tokia. Basoa dan lekua da.

ALKAR ULERTU-EZINA

(Errian eta Eleizan)

(Gaur eta edestian)

EZTABAIDAK

Ez dakit gaisoaren ala osasunaren ezaugarria dan, baiña alkar ulertu-eziña eta dana eztabaidatu-bearra ugari be ugari dabiltz gure artean. Eta ez gaur bakarrik, edesti osoan be bai, eta ez errian bakarrik, Eleizan be bai.

Idazki onetan Eleizeari begira jarten naz eta ez gaurko egunari begira, lenengo denporetako Eleizeari baiño.

GAURKO ELEIZAN

Gaurko Eleizan jokabide bi agertzen dira, bata eskoitarra deritxona, eta or daukaguz "Comunión y Liberación", "Opus Dei" eta "Kikoak", eta orrantza joten dauala dirudi gaurko Aita Santuak be; bestea ezkertarra eta or ezarri bear doguz Askatasunaren Teologia, Oñarriko Alkarteen Eleizea eta gaurko teologilari asko.

Eskoitarrak onartzen dabe Batikano'ko II Batzar Nagusia, baiña, eurak esaten dabenez, ondo ulertuta.

Ezkertarrak, ostera, Eleiz-Batzar Nagusi ori betetzea eskatzen dabe eta batzuk Batzar Nagusi barri bat eskatu be bai. Oneik aldakuntza asko egingo leukeez Eleizan, batzuk emakumeen abadetza eta abadeen ezkontza be eskatzen dabez.

Baiña ez gaitez an ikaratu olako eztabaidak agertzen jakuzelako. Eleizearen asieran eztabaidak askoz aundiagoak eta sakonagoak izan ziran eta azkenean bakea lortu eben, alkarte asko eta ezbardiñak izan arren.

Apostoluen Egiñak deritxon Liburuan zerbait agertzen dau Lukas ebanjelariak, baiña larregi zeaztu barik: Grezia'tarren alargunai ez ei jaken begiratzen.

Batzarra egin zan eta zazpi diakonuak aukeratu, danak Grezia'tarrak.

Baiña ez zan bakea lortu, aurrera jarraitu eben curen burrukan judatarren aldekoak, arik eta Esteban diakonua il arte.

Santiago Jesus'en anaia zan onein buru, baiña ez eben luzaro jarraitu: Esteban il ondoren Judatar-zaleak iparralderantza iges egin bear izan eben eta an amaitu zan alkarte au.

Greziatarren lagunak, ostera, Siria'ko Antiokia'ra joan bear izan eban eta antxe artu eben "kristiñauak" izena.

PAULO DEUNA

Antiokia'ko eleiza onetan, gauza arrigarriak jazo ziran amabost-bat urtetan (35n.etik 50n.era), batez be Paulo izan zan an adoretua eta arazo aundi au bideratu eban. Bernabe ebillan apur bat bitarteko lez.

Paulo'ren buruan, bai erri-aldetik eta bai fede-aldetik, jakintza edo kultura bi egozan: Judatarrena, izan be fari-seoen artekoa zan, eta Grezia'tarrena, Zilizia'n jaioa.

Jakintza bi oneik gauzak oso era ezbardiñean ulertzen ebezan.

Esaterako Jesus Jainkoaren Semea izatea, Judatarren-tzat Jainkoak maitatua izatea da baiña ez Aita lez Jainkoa, Grezia'tarrentzat, ostera, semea izatea Aita lez Jainkoa izatea zan.

Eta orrelan beste gauza askotan.

Paulo'k gauzak ondo pentsau eta arazoak argitu egin bear ebazan eta maixu lez egin eban lan ori. Garrantzi aundia dauka Paulo'k Eleizearen sorreran.

Eta urteen joanean, Paulo'k eta onen alkarteak gauza asko aldatu bear izan eben. Berak Antiokia'n ikusten eban eleizea eta gero bere izena daroen eta azkenengo eskutitzak agertzen daben alkarte oso ezbardiñak dira.

Etxura baten Paulo'k lenengo iru ebanjelioakaz kide-tasuna daukala esan lei, baiña kontuz, Paulo'ren buruan ikutu aundia euki eben orduko gnostikuak.

GNOSTIKUAK

Gnostikuak aitatu doguzan ezkerro, pentsakera au aztertu daigun: Kristo baiño berreun bat urte lenago asi eta Kristo gure artetik joan eta berreun bat urtean euki eben indarra eta Marzion agertzen da geien.

Laugarren ebanjelioak dauke oneik ikuturik geien. Ebanjelio au Joan'ek izenpetzen dau, baiña Joan au ez da Apostolua, bai ikasle maitatua.

Ona emen pentsakera bien artean dagoan alderik aundiena: Lenengo iru ebanjelioak, sinoptikoak, Jesus'en bizitza lurrean asten dabe, baiña Joan'ek ez, onek "Asieran ba-zan Berbea" esanda, an Aitaren etxean asten dau. Onek diñoana beste Kristo bat dala dirudi. Gaiñera gnostikuen bikoteak agertzen dira non-nai: Argia ta illuna, mundu ona ta mundu txarra, aingeruak eta deabruak, gogoa ta aragia... Eta Jainkoaren eta gizonen artean diran "eon"ak dauke garrantzi aundia.

JOAN'EN ALKARTEAK

Pentsakera orretatik kanpora, beste mundu baten lez, kokatzen da beste Joan batena dan Apokalipsis liburua.

Joan' en alkarateak asko zabaldu ziran Asia'n eta an ezagutuko doguz Antiokia'ko Ignazio Santua, Polikarpo Santua eta abar.

ZELAN ALKARTU?

Orra or. pentsakera oso ezbaridineta eleiz alkarateak: Judatarrena, Antiokia'n greziatarrena, Paulo'ren alkarateak. Joan'en alkarateak. Pedro'k be Antiokia'tik urten ondoren Erroma'n sortu eban alkarate bat...

Eta zelan alkartuko dira ain ezbaridin diran alkarate guzti oneik?

MARZION'EN ERAGIÑA

Laguntza aundi bat etorri zan gitxien uste zan lekutik. Marzion'en okerkeriak ikusi ziran eta beretzat liburu santuak zeintzuk ziran be bai eta orrek beartu ebazan kristiñau zintzoak Liburu Santuen zerrenda bat egitera.

Ez zan gauza erreza.

Paulo'ren eta sinoptikuen bidean egozanak ezin onartu ebezan Joan'en Ebanjelioa eta eskutitzak.

Joan'en eleizak osteraz ezin artu izan ebezan beste iru ebanjelioak. Eta or ebiltzan Paulo'ren eskutitzak be totxo baten batuta.

BIBLIA'REN ALKARTASUN BARRIA

Naikoa arin, lenengo gizaldia amaituta laster, ezarri zan Alkartasun Barriko Liburu Santuen zerrendea: Irakatsi zuzena eukenak eta eleizetan geien irakurten ziranak artu ziran, baiña ez gotzain baten aginduz, kristiñauen sendi guztien ustez eta eritxiz baiño.

AGUR JON EGILLEOR!

Ba-neban zeozer txarren bat etorri ekion susmoa. Neure olerki liburu bat eskatu eustan, adiskide batentzat bear ebala-ta eta, bereala bidali neutsan, baiña ez eustan esan artu ebanik.

Urte guztietan bialtzen eustan gabonetako agurra eta, urte atan, ez neban artu. Arrituta nengoan, ba, aren ixiltasunaz eta Zubiri'tar Iñaki'ri itaundu neutsan, aren, Egileok'tar Jon'en, barririk ete eban. Nire eskutitza artu ez-edo, ez neban izan erantzupenik.

Azkenengo ZER-en jakin neban aren eriotzearen barri eta atsekabe aundiz samindu nintzan.

Oso-osokoa ta gizon zintzoa genduan Jon. Gitxitan ikusten genduak alkar eta nunbait batzen gintzazanean, pozezko irribarrez alkar besarkaturik, euskera garbiz geure jazokizunak batak besteari azalduz, pozezko asti-unea izaten genduan.

Gizon zintzo baizen ongille arren arimearen aldeko Meza santua esateko agindu neutsan, geure abade jaunari, aren ilbarria jakin eta urrengo igandean.

Agur, ba, Jon, adiskide kutun orri, betikotasunean alkartu gaitezazarte.

Aurre-Apraz'tar Balendinek

Aiengiz, 2002, Garragarrillak 21

Orrean egin zan Eleizearen bakea eta gero laster asi ziran grekoen jakituria artuta dogmak egiten Nizea'n, Kaltzedonia'n, Konstantinopla'n...

Ez daigun ba iñoz itxaropena galdu. Eztabaidak izan arren, urrengo bakea etorten da.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKAL ASTEA (BILBAO'KO UDALAREN LAGUNTZAZ)

BILBAO
APUNIAAVENIO
LAGUNTZAILLE

Euskerazaleak Alkarateak, urtero legeaz, Euskal-Astea eratzen dau. Ona emen gaiak eta gaunak?

Tokia: Euskerazaleak'en egoitza. Colon de Larreategi 14. 2^a, eskoia.

Egunak: Azillaren 25'tik 29'ra.

Ordua: 8 retan.

Gaiak: 25. astelena: Bertsolaritza. Legarreta Asier.

26, Martitzena: Euskaldunak Europa'n. Atutxa Paul.

27, Lenengo Kristiñauak Mungialdean. Olazar Martin.

28, "36'ko Gudaldian su-izkillatutako idazlen gazteak" liburuaren aurkezpena. Latxaga, Atuxa ta Olazar.

29. Emeterio Arrese Olerkari giputza. Zubiri Iñaki.

EUSKERAZALEAK

2.- ARRI-BARRI AROA

K.a.'tik 8000n. urte-inguruan leiak eta izotzak joan ziran eta giro epela agertu. Aldakuntza onek bizikerea be oso-osoan aldatu eban eta orduko gizartean edestiko iraulketarik aundiena ekarri eban: Eiztariak aberedun biurtu ziran eta batzailleak lurgin. Etxeak ikusten asi gara zeleetan eta etxe-inguruan beiak eta txarriak, mendietan artzaiñak eta soloetan garia. Len alde batetik bestera ebiltzan eta orain toki baten geratu dira, teilladun etxeak egin da, mendietan geratzen dira artzaiñen "ormaetxeak".

Orra or milloiak urteetan baiño aldakuntza aundiagoa pare bat milla urtetan.

2.1. OITURA BARRIAK

Bizikera barri onek oitura barriak be ekarri dauz: Neandertal-gizona betiko galdu zan baiña cromagnon'ak aldakuntza aundi au onartu eta jarraitu egiten dau.

Auzoak sortu dira eta auzoetan bat da sendi-buru, besteak baiño aberatsagoa illobietan ikusten dan lez.

Emakumeak egiten dabe lurgintza-lana asieran eta lan ori egiteak emakumeai aginpidea emon eutsen eta sasoi orretan "matriarkado" egoan emen. Gizonak buztin-lana eta geroago burdin-lana artuko dabe, baiña ori beeragoko maillakoa da.

Auzoak uriko bizitza antzekoa dauke, etxe artean kale-antzekoak dirala, eta etxe-barruetan egiten dabez illobiak.

Auzorik zarrenak lur gogorrezko etxeak daukez, arriak oiñarrian dirala, eta orain artean biribillak izan dira, orain asten dira biribillaren aurrean laukizkoak egiten.

Euna egiten be ikasi dabe eta liñoa artzen dabe soloetan.

2.2. LANABESAK

Aldi onetan be arria lantzen da lanabesak egiteko baiña askoz obeto landua da: Aizkorak, aiztoak, aitzurrak, segak, esku-errotak, zorrotzagoak dira eta segak zurez be egiten dabez.

K.a.'tik 5500 urtean, arriaren ordezkari metalak erabilten asten dira eta apaingarri lez urrea ta zidarra erabilten dira.

K.a.'tik millagarren urte inguruan asten dira burdin-billa oster luzeak, batez be fenizioenak, eta orretarako indar aundia artzen dabe itxas-ontziak.


Burdiña k.a.'tik 1200n. urte inguruan aurkitu zan eta burdiñearen aldi onek zati bi ditu: Hallstatt k.a.'tik 500'era arte eta La Tene k.a. 100 urtera arte. Aldi onetan keltak dira nagusi curen ardiakaz Europa'ren egoalde osoan. 800n. urte inguruan artu eban indarra gure artean burdiñeak eta indar aundia artu be, Europa osoan salduko dira Euskalerriko burdiñak.

2.3. ARTZAIÑEN ETA LURGIÑEN ERLEJIÑO

Aurreko sasoiaren ez egoan aztikeria baiño eta piztiak ziran gai. Orain erlejiño-bizikizun barriak sortzen dira: Illak ondo zaintzen ez ba' dira etorri egiten dira eta kalte egin, eta ori il-ostean arimea bizi dalako. Orregaitik egingo dira arri-aundizko oroigarriak illobien gaiñean.


2.4. ARRIBARRI AROKO EDERTIA

Etxeak: Leizetatik urten ziranean etxeak egin ebezan, arrizko oiñarriak ipiñi eta gaiña zoi-errezkoa dala. Asieran biribilla zan etxea, gero, lautua eta gero sarreran lautua eta atzean biribilla .



Etxea asieran biribilla zan. gero laukizkoa ta biribilla

Baiña aldi onetan ez da etxea garrantzirik geien daukan eder-lana, illobiak baiño: Menhir deritxon arri zorrotza, dolmen edo triku-arri deritxon goitik bera eta ezkerretik eskumara ipiñitako arri-losakaz egiña, lerroak menhirak alkarren atzean doazenean, kromletxak toki biribilla inguratzen dabenean, lurpean dagozan illobiak eta emen be dolmenak eta bitarteak dagoz.



Dolmena illobiaren gaiña da: arriak goitik bera eta onein gaiñean zabaletara. Barruan illen autz erreak eta gomutakiak.




Arri zorrotzak edo menhirak lerroetan be agiri dira.


2.5. IRUDIGINTZA ETA MARGOLARITZA.

Jainko-amaren irudi diranak ugari agertzen dira, aundiak naiz txikiak, eta illarriak edo estelak be ugari

Arribarri aroko margo-lana be ez dira lengoak lakoak: Irudi biziak galdu eta lerroz egindakoak ugaritzen dira.



Emakume-irudia; lurrez eta burdin oriz (Jainko Ama)



Irudiak margotzeko era barria: eskemaduna

2.6. BUZTINGINTZA eta BITXI-LANA

Sortaldean k.a. 6500 urtean agertzen dira buztin-lanak: Asieran gitxi edertua da baiña gero gauza benetan ederrak agertzen dira.

Bitxiak egiteko oiturea geroagokoa da, La Tene sasoi-koa. Suiza'tik Europa'ko egoalderantz zabaldu zan.

Gogoan izan, Europa'n burdin-aroko gizon oneik zabal dabilzan artean, Grezia'n jakinzaleak edo filosofo aundiak daukaguzala eta Erromatarrek euren legeak egi-ten asita dagozela.

OLAZAR'tar Martin'ek.

MUNDUA ETA SENTIMENAK

ZER ETA ZELAN

Antxiñako gure jakin-zale edo filosofoak itaun sakon oneri erantzun bear izan eutsoen: Gugandik kanpoan dagon mundutik zer ezagutzen dogu edo zelan ezagutzen dogu mundua? Eta erantzun bat au izan zan: Or aurrean dagon mundua sentimenen bidez sartzan da gure adimenera, eta adimenak egiten dau ezagupena. Baiña bakoitxak bere erara. Gure idea edo burutapen guztietan gauza bi dagoz: zer ezagutu dogun eta zelan ezagutu dogun.

Ezagutzeko gauza bakoitxaren osokiak kendu eta orokor biurtzen dogu: "Gizona" ez da Kepa edo Jon, "Gizona" ez dago iñon geure buruan baiño eta onek balio dau Kepa naiz Jon izateko.

Ezagutzeko erea dan "gizona" or agertzen ba'da, erea edo "modus quo" beti agertzen ba'da, zentzunen munduan askoz geiago jazoten da ori: Guk barruan daukagun margoa, kolorea, ez da kanpoan dagoana, ez da "zer", "zelan" da.

Baiña goazen sentimen batzuk aztertzeraz.

IKUSMENA

Zeruan noizean bein agertzen dan ostarkuan agiri diran zazpi margoak dira edertasunen iturri. Ituna, tristea, litzake margo-bako mundua! Olakoa izan zan milloika urteetan!

Non dagoz margo orreik (zergaitik zazpi?)

Margoak ez dagoz kanpoko gauzetan, begietan eta barrurago baiño. Zentzundunen begiak dira margoen egilleak.

Zer dator begietara? Ez margorik, ez kolorerik, gauzak bialtzen dabezan uñak baiño. Gauzak, berez, margo guztiak daukez barruan, begietara uñen bidez botaten dabezanak izan ezik.

Begiak dira mirari aundia egiten dabenak: uin orreik artu eta margo biurtu. kolorea sortu. Begiak dira mundua margo ederez beteten dabenak. Begirik ez daukan mundua ituna da, kolore-bakoa!

Eta uña kolore biurtze ori guztiok bardin egiten ete dogu, naiz notiñak, naiz abereak? Ai! or ez daukagu ziurtasunik. Konturatu zer jazoten jakon daltonikoari! Margo batzuk ez dauz ikusten, uin batzuk ez dauz artzen!

Eta nok egin dauz munduan alkarren antzeko diran ainbeste begi? Oraintsu asmau dogu argazkiña. baiña ez da eltzen begiaren maillara, ez dau egiten besterik begiaren almen batzuk sortu baiño. Beste bat da egilleal.

ENTZUMENA

Musika-egille edo ereslaririk onenen gaiak entzuten doguz eta pozik artu, baiña zer da zaratea, soiñua, musikea?

Entzumenik ez dagon lekuan ez dago zaratarik, ez dago soiñurik. uñak baiño ez dagoz, biboliñari eragin eta burdinariak sortzen dauzan uñak. Eta uñak isillak dira.

Gure entzumena, gurea naiz abereena, da alatz edo mirari ikaragarri ori egiten dauana: uña dan lakoa belarrian artu eta burura bidean zarata edo soiñu biurtu. Egilleak asmau eban

ori. Guk geroago sortu doguz zeozetan antza dauken gramofono edo fonografoak, baiña oneik be uñen munduan dagoz eta entzumenik ez dagon lekuan ez dabe sortzen soiñurik, ez zaratarik. Zaratea eziña da entzumen barik.

Mundu isilla, mundu ituna: eres-bakoa, berba-bakoa. Entzumena bear!

BESTE SENTIPENAK

Sentimenak banaka aztertzea luzca litzake eta labur-labur aitatu daiguzan batera: Gugandik, zentzumendunengandik, kanpoan ez dago sentipenik: Otza eta beroa? Geuk egiten doguz, ez dagoz or kanpoan, uñak baiño. Miña eta atsegiña? geuk egiten doguz, ez dagoz or kanpoan orrein uñak baiño. Gozotasuna ta garratasuna? Geuk egiten doguz. Ez dagoz or kanpoan onein uñak baiño.

MUNDUA SENTIPEN BARIK

Zentzudun izakiak milloi batzuk urte dirala agertu giñan munduan. Itxaso bazter baten izan ei zan. Antxe agertu zan bere buruari eragiteko duin izan zan lenengo izakia, izaki bizia. Eta askoz geroago itxasoaren bazterren baten entzun ei zan lenengo aienea. Ordura arte landaren bizia baiño ez egoan. Baiña ordutik aurrera mundu barri bat agertu zan, gaurko mundu au, bizidunen eta zentzundunen mundua. Lengo mundua argi eta margo-bako mundua zan, mundu isilla. Lenago bizi-bako mundual.

Bizia. entzumena eta ikusmena sortu ziranean, dana zan argia ta illuna, dana margo ederra. dana poza ta nekea.

ENTELEKIA

Zer da entelekia?

Gerkeratik artutako berbea da eta sinistedun jakitunak erabiltzen eben: "Elburu baterantza joatea" esan gura dau. Eta errazoi aundia eukin sinistedun jakitun areek: Bizidunen asieran elburu batera daroan kode bat dago eta ortik sortzen dira bizidunaren almen guztiak, berez-berez.

Gero sinistea galdu eben jakitunak asi ziran "entelekia" ganorabako smakizuna dala esaten. Baiña kontuz! Kode orreik or dagoz eta euren elburua lortzen dabe ludi osoan milloika bizidunengan. Amak ez daki bere barruan umea zelan osotzen da, baiña entelekia bete egiten da eta kode orrek eskatzen dauan lez agertzen dira izaki bizidun barriak.

AZKEN-OARRA: Egilleak mundua egin eban, mundu orretan, millak-milloiak urteak geroago bizia agertu zan, urrengo sentimenak, urrengo, orain milloi-urte gitxi, adimena luneratu zan primateen bidez... Or amaituko ete da mundugintza? Ala zerbait geiago itxaron geinke? Zer?

Nik uste dot mundugintza aurrera doala, baiña ez dakigu zer etorriko dan. Gu aldi txiki baten lekuko gara eta ba-goaz!

Olazar'tar Martin'ek

- EUSKALERRIAREN ETSALIAK -

Nik, lagun aundi bat euki neban, " Aita Santi ". gure alkar izketan esaten eustana: " Euskalerrria'k ARERIO asko daukaz...".

Leenengo egunetan ez nintzan konturatzen, bere berbak nora-arteoko ikusmena eukingo eben. nigaz bere ekin-tza, ixiltasuna eta ikasteko liburuak emotekoa zalako, eta benetako arrazoia euki ebala urte oneitan ikusten asi naz.

Noz bein gure edestiari ikus-arin bat emoten dautsot, Olazar'tar Martin'ek ezkatzen dauztanean, ZER'erako idazlanak egiteko. Ziurtasunean osoz edo geiena billatzen dot.

Baiña Espainol'ak esaten dabenean, eta batez be gaur Oreja'tar Martzeliño'k " Euskalerrria'k sekula ez dauela euki gaur daukan askatasuna", curen lotsagabeko menpe-tasunak aurrera eroateko, neure barruak irikitzen ipinten dira, ez dagoalako esku-biderik ainbeste guzur ezeren ardura barik esateko. Orrek guzurrezko maltzur gauzak faziztak baiño ez dabezelako esaten.

Orregaitik oraingoan bir-ikaste zeatzago bat emon dautset, belarri orreri esateko: erromatarrak etorri arte askatasun osoan bizi gintzala. Eta erromatarrak ekarri eben asmoak, euskal leiñu batzuri euren aurka sortutakoak ikusita ta gero, eurakaz elkar-aditu giñala naaztetasun barik, euren aldaz-beerako porrotean, gure Euskalerrriaren izatea Euskera eta Nortasunak berrezkuratuta.

Irugarren gizaldian Bandalo'ak eta Alanoa'k etorri ziran gugaz zer ikusirik euki ez ebenak. Eurakaz batera Suevo'ak etorri ziran, gero V'garren gizaldean Godoa'kaz leenengoetan eta gero Godo'ak bakarrik ibili menperatasunezko ekintzetan, gure askatasuna oso osoa izan zala, nai curen menperatasunezko gogoen artean eta euren erregetza artzerakoan, errege gaiaren zin-itza emoterakoan, arauen arteko bat " ET DOMUIT VASCONES" esan bearezko esatea euki ebala.

Ararte Godoa'ren aurka, Euskaldunak gudarako antolamendu bakoak izan ba ziran be, zaar-batzarretatik buruzagiak gudarako taldeetan asi ziran ezartzen; eta eurakaz gure borrokak iraun eban. Godo'aren erregetzak iraun eban aldian.

Aldikada baten..., Espainol idazle batzuk asi ziran esaten "ASTURIAS'eko" erregeak izan zirala Godo-erregetzaren ordezkioak, eta gure Kanpion'tar Arturo'k bidera urtenda esan eutsoen: "EMEN JABE-GAI BIDEEN BAT EGON IZAN BAZAN BE, IKUS-EZIÑARENA IZANGO ZALA; ETA GOGO ANDIENETARIKO BAT, EUREGANDIK MENDERAKATUAK EZ IZATEA" izango zala.

Arabitarrak etorri ziranean eta Iruñean sartu 718'an, eurakaz alkargo baten bitartez Euskaldunak azpiratu egin

zirala zerga bat ordainduz. Geroago "Ocba" mauritarra Euskaldunak ez ebela ordaintzen 734'an ostera sartu zan Iruñean indarrez beterik, eta joan zanean bertan mauritar indarrak itzita, Euskaldunak ostera be jabetu zirala. Andik aurrera Euskaldunak askatasun osoan bizi ziran, nai-ta I'go Abderramanetik asita eurekin borroka batzuk egin bearra izan.

Gure erregetza eta beraz gudarako antolamendua Ari-tza eta Jimenez'tar Iñigo'rekin asten da eta II'garren Enrike'gaz amaitu Auñamendi'ko Egoalde onetan.

Oreja'tar Martzeliño'k sekula ez dauana esango, orduko Napar-erregeakaz erriak Nortasunezko antolamenduak egiten ebazala. Ez da gutxiago: 1504'an Isabel katolikoa il zan eta orduan. Gaztelarrak Fernando. beren Aragoiko erreñura bigaldu ebela, Juana beren alaba Austriako Felipe "el hermoso'rekin" eskonduta egon zana Gaztelatar'en erregetzara igonda.

Oneik, Nafanoa'ko erregeakaz 1506'an Agorrilla'ren 27'an adiskidetasunezko elkargo bat sinatu ebela Fernando'k ezer jakin gabe, au oso asarratuta geratuz.

Fernando bitartean Foix'tar Germanarekin ezkondu zan eta seme bat euki eban. Oneik, Frantzia'ko erregetzaren oiñordezkoak izan ziralako ortik aurrera, Espaina'ren aberrikoari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakiela, eta bereala Felipe "el hermoso" ori, ur apur bat edanda il zan, Juana zoratu. Germana il zalako bai gero semea be, Fernando'ri deitu eutsien Gaztelarren erreñuan errege ordezkioa izateko. Zergaitik ez..., Cisneros Kardinalari?.

Felipe erregea il da. Frantzez eta Gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan, eta Fernando'k orren egoeraren unetxoa gozatu eben Naparrak zigortzeko. 1512'an Uztaila'ren 21'an Alba dukearen guda indarrak Iruña aurrean geratu ziranean eta iñungo borrokarik gabe Uztaila'ren 25'an uriko giltzak emon eutzezan Alba dukea'ri. Azkene-ko alegiñal "Maian", Fransizko Xabier'en sendia eta Nafarroa'ko erregeakaz ados egon ziranarekin egin ebena, baiña 1513'ko Jorrallean jausi ziran Gaztelarren eskuetan. An dago oroit-arria "MAIA" erritxoa borroka ori oroitzeko.

A ta guzti, Fernando'k nai-ta guda eskubideakaz ezarri beren ekintza, Done Fransizko Xabier'en aitari, legezko Nafar-errege aldekoa izan zana indar guztiaz, beren errege-aolkularitzari il arte ekin eutson. Nafarroa'ko Forua'ri zin-egin eutson 1513'an Epaila'ko 23'an, eutsi egingo ebala Nafartanen jaurkintza guztia, gero 1515'an Tudela'n sinatu zan alkargoarekin. Nafarroa'ren legezko erregeai andik aurrera antolatzeke, ekintzaren bideak moztuta.

Fernando 1516'an Urtarrilla'ren 23'an il zanean, Nafartarrak ostera be gudarako aupatu ziran, baiña Jimenez de

ERRIGINTZA

Cisneros'tar Francisco ordurarte Toledo'ko kardinal nagusia eta fede-zain (inquisidor) aundiena, gero errege-ordea izendatu eben, eta beren koronel Villalba'rekin Nafarroa'ko gaztelu, eleiza eta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat Nafar ilda eta ereiñeko lurak suagaz kiskilduta. Triskantza au eginda, Villalba Koronelak Cisneros'eri idatzi eutson: " Navarra está tan baja de fantasía después de que vuestra señoría reverendísima mandó derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza".

Zisneros, 15 17'an Azaro'ko 8'an il zan, eta Nafartarrak ostera be gudarako aupatu ziran, Noain'en 1521'eian Bagilla'ren 30'eian guztiz apurtuta geratu ziranak, Espainia'ren I'go Karlos, Alemania'ko V'gan'ena eta IV'garren Nafarroa'ko erregea andik aurrera izango zanaren eskuetan geratu zana.

Eta Nafarroa'ko IV'garren Karlos izan da.....Naparrak Spainolak dira?. Nai-ta ostean Nafarroa'ko IV'garren Karlos'ek. Beenafarroako'ak bertan itzi edo ukatu, Añamendiak berezko mugen antzera geratu daitezana.....Euskaldunak Spainolak eta Frantzezak gara ?. Beenafarroan ortik aurrera be Euskal erregetzak iraun eban.

Eleizak indar asko auki arren, erregeak ziran egilleak, eta oneik baleiteke apurka apurka gura ebela Erri Berezien Nortasunak urtu edo ezeztatu daitezana, zentzunezkoak jakin ebelako, gizarte eta Erria'ren Nortasunak ez dirala berez urtzen, il da ezin ezik. Orregaitik dabiz gaur be ainbeste eratara saiatzen.

Orregaitik Nafarroako IV'garren Karlos, V'garren Alemania'koa eta I'go Espainia'kotik asita azkeneko Austria'tarren arte, EuskalelTiak askatasun osoa euki dau, naita bidean asarre batzuk euki arren, bere Jaun edo errege' az sinatutako alkargo edo itzarmenaren bitartez .

Eta aspertu ziralako itxaroten, berezitasunezkoak ez gintzalako urtzen, V'garren Felipe borboia ipini eben, ia gudaren bidez, Ugarte-erdi onen berezitasun guztia desagertuteko naian (gaur be ori asi dira egiten elkarteko legearekin, Batasuna'ren aitzakiaz).

Ortik aurrera indarraren bidez gura eben. berezko erriak eta izkuntzak desagertu daitezana; eta ekintza orretan ainbat borroka, eriotza, espetxe, negarra eta abar euki doguz, GUK ZUTIK agertuz, Nortasunak eta izkuntzak noz askatzeko agertu, curen indarraren aurka. (Nai-ta gure artean be etzaiaren lanak baten batzuk egin: "sujeto politikoak ez garela" esanez. Zelan gabiltz?. Biziagaz batera ez gara ezer!!).

Gaur erregetza ia desagertu arren Europa guztian, menperatzail asmakizunezkoak gudaloztearen laguntzaz, daukaguzan iñungo arrazoi gabeko Laterri oneik ezarri daukue espatak buru gaiñetan daukaguzela. Len esan doten lez "por su destino en lo Universal"; eta gaur, gagozan denboratan, barregarrizkoa da ori.

Orregaitik "OREJA" orreri esan bear jakona: Euskalerria eta batez be EUSKADI iñoz!, ez dala makurtuko

beren askatasuna lortuarre, ori dalako JAINKOA'ren agindua, danez gain danok "ARDURADUNAK" izan gaitezana, BERAK garan guztiak Ludi onetara ardurazko gauzak egitera BIALDU gaitulako.

"ABERRIA MAITE DOGU, AITA'REN GANDIK DATORRELAKO".

Eta etorren asmakizuna argi ikusten da Cisneros'egaz: erromatarren Kaizar-jaun Konstantino aundiak 325'eian Nizea'ko Eleiz-Batzar nagusia batu ebanetik katolikotasunari indar guztia emonda, besteak sinis-austera botata, gero Godoa'ren Rekarredo'k Toledo'ko Eleiz-Batzar nagusia 589'an batuta bardin egin ebana, beranduago, Afrika'ko kruzadetan egin ziran astokeriak Maoma'ren erlijioen aurka, bera azkoz geiagoan aundiagotuz; bealdeko Ameriketara egin ziran lapurketak, ilketak eta egin ziran naastetasun guztiakaz katolikotasunaren izenean, goitik-beera nortasunik gabe itzita, gaur guztiz nora-ezean dabienezak, bideak aurkitu barik. Cisneros'en alegin nagusiak ziran Eleiza'ren katolikotasun (Universalidad) jabetasunagaitik.

Eta katoliko= latin katholikos'etik datorrena da, eta berau Griego Kata'r= ulertza esan gura dauana, eta holos= dan guztia esan gura dauana. Itz ori artuta, erabagia artu eben esateko: katolikotasuna bakarrik zala Universal, egizkoa eta ziurtasunezkoa Ludi onetan. Orregaitik Arri-notarrak, moroak eta abar alboratuta, beren eritziz bera dalako egian dagoan bakarra, ortik agertzen dira: "la misión del catolicismo" "el destino en lo Universal" "la misión en lo Universal" eta ainbat abar.



Argi eta garbi ikusten dana, guztiz berezitasunaren aurka dala asmakizun guzti au; eta gaur oraindiño dauan "arra" ori dala, batzuk bakarrik ondo bizi daitezana. Baiña danok ondo-bizi ezin izanik, eten-bako borroka dala, danok gura nai-ez ardurak zaintzeko jaio garalako.

II'garren Juan Paulo'k, Ameriketako babesean gaur Munduan ezarri gura dauan batzangotasuna salatzen dau, baiña konturatuko dira..., eurak daukiezan katolikotasunezko legeakaz menperatasun orreik lortzen alegintzen dirala?.

Orregaitik gure EUSKADI maite onetan gaur, ez dogu bear indarkeririk, eurak orren atzakiaz, dagozan Laterriko maillan arrazoitu baiño ez diralako egiten indarra erabiltzeko, eta orren babesean indarra erabiliaz iraun egiten dabelako daukiezan menperatzail asmakizunetan. ABERTZA-LETASUNA eta JAKINTASUNA baiño betterik ez!. Ta danok bat eginda, erakutsi guzurrean dagozela, len-bait-len askatasuna lortzeko.

**ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2.002'an IRAILLA'ren 1'eian**

EUSKALDUN BARRIENTZAT




7 ez bardintasunai



Margoztu kolore ezbardinakaz!!



Nundik joan bear dau suitzaille au?



Marrazki onetan 8 erru dagoz




kultura

sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.